

Joxerra Aizpurua
INDUSTRIA INGENIARIA

Bai, baina lagun izanik hobe

Egunkariak eta zientzia-aldizkariak ia egunero ematen dute ikerketa bat baino gehiagoren berri. Alor guztietan egunero zerbait aurkitzen da, zerbait hobetzen da edo zerbait gehiago ezagutzen da. Energia iturri garbien inguruan hidrogenoa lortzeko gero eta bide merkeagoak aurkitzen ari dira; ingeniariaren genetikoaren bidez ama zelulek gero eta erabilpen garbiagoa dute; enpresarako kudeaketa-sistemak ere ez dira lasterketa horretan atzean geratzen; komunikazioaren alorrean zer esanik ez: gero eta banda zabalagoak daudenez, telebistak eta Internetek bat egitera joko dute; telefono eramangarrietatik gero eta informazio multimediagoa izango dugu. Eta gainera aldaketa horiek guztiak gero eta azkarrago egiten dira; areago, gero eta ohikoagoa da teknologia bat zaharkituta geratzea gizartean inplementatu aurretik.

Udako oporren itzuleran enpresaburu batekin solasean aritu nintzen eta hark esandakoak zer pentsatua eman zidan. Egunero e-postetatik eta faxetatik publizitate mordo bat jasotzen zuen gai ugari buruz: enpresa-antolaketa, formazioa, komunikazioa, biltegien egituraketa, salmenta birtualak, eta abar. Horren guztiaren inguruan gauza desberdinak galdetzen zizkidan. Adibidez, nola jakin gai bati buruz ailegatzeko den informazioetatik zein komeni zaion eta zergatik; nola ziurtatu erositako teknologiaren etorkizuna eta eguneratzea; nola inplementatu teknologia berriak lantokian, pertsonen laneko ohiturak alda daitezkeela kontutan



ALBERTO ELOSEGI

hartuta; erresistentziak nola ekidin edo nola gutxitu; nola saldu gehiago laneko taldea handitu gabe; arestian planteatutako galderari buruzkoak nola pentsatu, egunero enpresetako arazoei aurre egin behar bazaie.

Galdera horiek banan-banan badute erantzuna, baina nondik hasi? Zenbat eta noiz inbertitu? Hauek ere badute erantzuna, baina erantzun bat topatu eta gauzatu orduko beste bizpahiru galdera berri sortzen dira eta horrela zurrumbilo amaigabea osatzen da eta gero eta konplexuagoa gainera.

Kafera ailegatzeko etenik gabeko solasa zena gero eta isilune luzeagoak zituen elkarrizketa bihurtu zen, hitz egindakoa biok liseritzen ari baikin; baina zerbait gehiago gertatzen ari zen, hots, bezero/hornitzaile gisa hasitako otorduko solasaldiak aurrera egin nahi bazuen kosturik gabeko konplizidatez eta jakinduriak jantzi behar zen.

Euskal Herrian enpresen %90etik gora mikroenpresak dira, hau da, hamar langiletik beherakoak, eta hauek, hornitzaileak baino gehiago, laguntzaile teknologikoak behar dituzte ondoan. Hornitzaileontzat papera aldatzeak baditu bere zailtasunak —noiz eta nola atenditu, bezeroaren kobraketa nola planteatu...—, baina baita satisfakzioak ere, eta ederrak gainera. Denetan aipagarriena, elkarkidetzaren sortzen den ezkontza bera, urtetan luzatzen den harreman konplize hori bera. Dirutan neurtzerik ez dagoena, portzientzia. ■

«
Euskal Herrian enpresen %90etik gora mikroenpresak dira, hamar langiletik beherakoak, eta hauek, hornitzaileak baino gehiago, laguntzaile teknologikoak behar dituzte ondoan
»

TXANDAN

Edu Zelaieta

Ari haiz?



Idazleei, musikariei, iker-tzaileei edota artistei maiz galdetzen zaie noizko hurrengo proiektua, ea dagoeneko horretan ari diren. Hedabideetako elkarrizketa publikoak nahiz solasaldi pribatuak lekuko. Nire begi-belarrien arabera bederen, bitxia da euskarazko mundutxo honetan hiketan galdetzen duten (ia) denak gizonezkoak direla ohartzea. Are gehiago, galdetzeko atrebentzia duten (ia) denak gizonezkoak ohi dira. Gure —literaturaren— soziologiaren sintoma ote?

Badirudi jendartearen goi-beheak eta ezker-eskuinak melatu dituen eredu kapitalistak kultura sortzeko moldean

ere eragin nabarmena izan duela: produktu bat egin orduko, hurrengo ekoizterari abiatu beharra da nahitaez. Kateak ez du etenik onartzen, ezta kazetarien edo lagunaren asmo oneko galderekin ere. Eta ez zait harriztekoa iruditzen; azken batean, sortzailearen prezio batzuen menpe bizi da, inguruko pertsonak bezalatsu.

Kontua da halako sukarrak gauzak sortzera eramaten ahal gaituela, benetan ezer sortu nahi ote dugun jakin gabe. Horrela, sortzaileak etengabe behar du ari eta ari. Atergabe, negu bihotzeko elur erauntsia balitz bezala. Begira, begira leihotik: kultura ari du, mara-mara. ■